


2005eko otsaila 104. alea

Componentes	36	Bera Garraioak S.L.	50	Tal. Mecanicos Telleria
EN 25 - 34	37	Suministros Alf.	TEGIA - PABELLON 51 - 61	
Enrique	38	Katea Lantegiak	51	Tal. Mecanicos Telleria
endizabal	39	Gráficas Legazpi	52	Goi-Desing
endizabal	40	Ascensores Sagastizabal	53	Sum. Hot. Eu
endizabal	41	Ascensores Sagastizabal	54	Rile, S.Coop
ilica Alberdi	42	Ekintza	55	Columnas Hidr
ilica Alberdi	43	Mancomunidad Urola Garaia	56	Met-Meka
ilica Alberdi	44	Mancomunidad Urola Garaia	57	Talleres Mec
ilica Alberdi	TEGIA - PABELLON 45 - 50		58	
ilica Alberdi	45	Kinsan	5	
uskal-Herria	46	Kinsan		
ON		Tal. Mecan		
rai		Congela		



Zumarragako Arau Ordezkatzaileak: piezak bat egiteko garaia

IRITZIZ IRITZI: JOXE MARI GABIRIA
ELKARRIZKETAK: MIKEL RODRIGUEZ - ARANTXA ARTETXE
IZERDI PATSETAN: MIKEL TELLERIA ETA SANTI PEREZ

Etxean bezala

Pagoeta Haur Eskola



Matrikula epea: martxoaren 1etik 15era

Informazio gehiago nahi izanez gero, 605 72 85 76 telefonora deitu

ARGAZKI ZAHARRA



60ko hamarkadan Zelai-Arztiko pala pilota txapelketan ateratako argazkia. Zutik, ezkerretik eskubira: Oiarzabal, Pello Aranzadi, Idiakez eta Inazio Anduaga. Makurtuta, ezkerretik eskubira: Urkia, Migel Urteaga eta Ramon Anduaga.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea.

Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 ISSN: 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

EDURNE

GIZONEZKOEN
JANTZIDENDA ESKUZ
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA

2005eko otsaila

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak
Gotzon Aranburuk atera
eta maketatu ditu.



Mende berriko Zumarra

Alkatearen eta alderdi nagusien proposame

Zumarragako Arau Ordezkatzaileen (AAOO) berritzea puri-purian da. Izan ere, bi edo hiru legealditan behin ematen den prozesu honetan herria hurrengo hamarkadetan nolakoa izango den zehaztuko da hein handi batean. Hala, ez da harrizkoa Iñaki Albisu zumarratarrak eta bere lan taldeak prestatutako proiektuak ikusmin handia piztu izana eta bai bizilagunek eta bai alderdi politikoek hainbat alegazio aurkeztu izana. Dokumentuak behin-behineko onespena jaso zuen urtarrilean PSE-EE, EA, EB eta PP alderdien aldeko botuekin. EAJk aurkako botua eman zuen eta Pagotxeta plataformak, jakina den bezala, ez du bozkatzeko aukerarik. Alegazioak aurkeztu dituzten alderdiak, berriz, EA, EAJ eta Pagotxeta izan dira. Alegazio hauek guztiak aztertu eta legeak agindutako gainontzeko pausoak eman ondoren, Anton Arbulu alkatearen ustez urte amaierarako, AAOO berrien behin-betiko onspena emango da. Arbulu alkatearekin Iñaki Albisuk idatzitako dokumentuari buruz hitz egiten izan gara eta alegazioak aurkeztu dituzten alderdietako ordezkariak ere euren ikuspuntua azaldu digute.



PSE-EE, Pagotxeta, Ezker Batua eta PP Kalebarren egungo itxura mantenduz berritzearen alde daude

EA eta EAJ Kalebarrenetik Ipintzaraino berritze bateratua egitearen alde daude

Anton Arbulu: "Goierriko herri garrant

Zumarragako AAOOak 1994. urtean berri-
tu ziren azkenekoz. Abian den berrikuntza-
ri, berriz, 2003ko urrian ekin zitzaion.
Prozesua alegazio fasean izan da urtarrila-
ren 31 bitartean. Epe horretan 31 alegazio
aurkeztu dira eta Iñaki Albisu udaletxean
izan da herritarren zalantzak argitzen.
Anton Arbulu alkatea gustura ageri da
herritarren partaidetzaz. "Zumarragarak
kezkatuta daude eta normala da, AAOOek
herriaren etorkizuna eta herriko gune
ezberdinen garapena zehazten baitute".

Alegazioek eraginda aldatetak
izan daitezkeen arren, AAOOen berritze
dokumentuak 1994. urtean aurikusitako
lanak bukatzea eta ekonomia jardueretara-
ko eta etxebizitzetarako lur sailen eskaintza
handitzea jasotzen du, nagusiki. AAOO
berriek 1.531 etxebizitza berri egitea auri-
kusten dute, hauetatik 522 babes ofiziale-
koak. Helburua egungo biztanle kopuru-
aren (10.300) beharra asetzea da. Etxebizitza
gehienak Artizen (209), Egibiden (450),
Eitzan (306), Forjas Zumarraga eta Ipintza
bitartean (156) eta

Elgarrestamendin (20) egingo lirateke.

Ekonomia jardueretarako, berriz,
28,64 hektarea bideratu nahi dira. Oianguren
ibarrean (Eitza jaisten eskubitara) 118.300
m²ko industrigunea egin nahi da, Buztintza-
Saltsamendin (Eitza jaisten ezkerretara)
68.100 m²koa eta Egibiden (ospitale inguru-
an) 100.000 m²koa. Anton Arbulu alkateak
aipatu digunez, Egibidekoa epe luzeko egitas-
moa da. Izan ere, "lehenago betetze lan
garrantzitsuak egin behar dira, baina 10-15
urtetan bertan etxebizitzak eta parke teknolo-
gikoa egingo dira. Betetze lanetarako inguru-
ko altzairu-fabriketan sortzen den zepa (escoria)
erabili daiteke. Foru Aldundiak eta Eusko
Jaurlaritzak zeparentzako gune batzuk
prestatzea erabaki dute, ingurumena aint-
zat hartuta, eta inguru honetan sortzen den
zepa Egibidera eramateko proposamena
luzatu digute. Izan ere, altzairutegietako
zabortegeiek gainezka egin dute eta guz-
tientzako zabortegeia egin beharra dago.
Nire ustez, Egibideko ibarra horretarako
toki bikaina da. Izan ere, herritik kanpo

garen nondik norakoak

ak Arau Ordezkatzaileen berritze prozesuan



Anton Arbulu:
"RENFERekin akordio batera iritsi gara eta kontainerrak dituzten tokian 6 autobus ingururentzako autobus geltokia egingo da"

EA:
"Trintxeratik Zumarragako saihebidetaren berriaren irteeraraino trenbidea lurperatu beharko litzateke"

Pagotxeta:
"Geltoki intermodalari dagokionez, bi Udalak eskutik joatea nahi dugu bien egitasmoak bateragarriak izan daitezen"

itsuenetako bat izateko ahalmena eta azpiegiturak ditugu"

dago eta komunikabide onak ditu inguruan. Hori bai, kontrol neurri oso zorrotzak eskatuko ditugu. Betetze lanaren ondoren, zabortege gainean AAOOek jasotzen duten parke teknologikoa egingo da. Etxebizitzak inguruan egingo dira".

Komunikabideei dagokionez, AAOO berriak Oiungurenen Abiadura Handiko Trenarentzat tunela egitea aurriratu du. Horretaz gain, dagoeneko abian diren Azkoitira eta Legazpira bidegorriak aipatzen ditu eta RENFERen kontenedore gunean autobus geltokia egitea eta Zelai-Arztin eta geltokietako plazan lurrazpiko aparkalekuak egitea aurreikusten du. "350 aparkaleku inguru egin beharko genituzke bi gune horietan. Geltokiko egungo aparkalekua hustu egingo da, bi aparkaleku berri hauek lurrazpikoak izango baitira. Bi solairu izango dituzte eta solairu bateko plazak bizilagunentzat salgai jarriko dira. Autoa gutxiago erabili dadin disuasio-neurriak hartu beharko dira, nahiz eta Zumarragan aparkalekua ordaintzera ohitua ez gauden".

Garraioarekin loturik, autobus geltokia egin nahi da. "RENFERekin akordio batera iritsi gara eta kontainerrak dituzten tokian 6 autobus ingururentzako autobus geltokia egingo da. Geltoki honek mugikortasun jasangarria ekarriko du, baina horretarako garraio publikoaren eskaintza ere hobetu beharko da. Bestalde, Zumarragaren bidegurutze izaera berreskuratze oso garrantzitsua izango da. Ildo horretan, udaberrirako Ormaiztegi-Zumarraga errepide berria amaituta egongo da eta Eitzako Zumarragara sarrera askoz ere erosoagoa izango da. Bestalde, Foru Aldundiak urte amaierarako errepide horretako Zumarragako saihebidetako obrak esleitzea aurriratu du".

Ekipamenduetan berrikuntza nagusiak ospitale ondoan egin nahi den geriatiko berria eta Zelai-Arztin kultur etxea dira. Bestalde, Antion eraikina egitea aurreikusten da, noski. "Lurra lehenbailehen erosi nahi dugu eta horretarako aurrekontua onartua dago. Asmoa Antio ikustera etortzen direnak bertan denbora gehiago

gelditzea da. Horretarako, bideo bat eskaini daiteke, turismo bulegoa eta taberna izango dira...".

Alegazioei dagokionez, gehienak Kalebarrenekin zerikusia dute. Izan ere, jabe batzuk eta EA eta EAJ alderdiak etxe guztiak bota eta inguru osoa berritzearen aldekoak dira. AAOOek, berriz, Kalebarrenen izaera mantentzea aurreikusten dute. "Jabeak eurak Kalebarren osoa botatzea ezinezkoa dela ikusi dute, nire ustez. Izan ere, nahiz eta Kalebarren eta Ipintza artean aurreikusi baino etxe gehiago egin, denak ados jarriko dituen akordioa heltzea ezinezkoa da: etxe eta komertzio batzuk berrituak daude, beste batzuk zaharrak dira... Hori dela eta, etxeak banan-banan bota beharko dira. AAOOetan etxe bat botatzen den bakoitzean bost solairuko etxea egitea aurreikusten da. Nire ustez gehienak honekin ados daude, nahiz eta batzuek dena botatzea nahi duten, beste batzuek etxe berriak luzeagoak izatea nahi duten... Teknikariek alegazioei emango dieten erantzunak jendea gustura uztea

espero dut, baina ezingo ditugu denak gustura utzi. Jabeek euren jabe goari ahalik eta probetxu handiena atera nahi diote, normala den moduan, baina oreka topatu beharko dugu".

Eztabaida handia piztu duen beste gai bat Argixaoko *anexoan* etxebizitzak egitearena da. AAOOen idazki berriak ez du halakorik jasotzen, baina PSE-EEk hori egiteko asmoa azaldu du. "Gobernuak aukera hori aztertzea erabaki du, besterik gabe. Nire ustez Argixaoko belar artifiziala aldatzeko beharra egon daiteke, baina *anexoari* ez zaio erabilerarik ematen. Bertan altzariz hornitutako alokairu merkeko etxeak egin beharko lirateke etxebizitzaren arazoari erantzuna emateko. Horrek ez du esan nahi besteen iritziak aintzat izan nahi ez ditugunik, beharbada beste *anexo* bat egin beharko da beste toki batean... Bestalde, Zumarragako kirol instalakuntzak inguruko herrietako jendeak erabiltzen ditu, baina Zumarragako Udalak soilik ordaintzen ditu mantenu lanak. Gastu horiek guztion artean ordaindu beharko genituzke".

Bukatzeko, Anton Arbulu alkatearen ustez Zumarragak etorkizun oparoa du eta hazi egingo da. "Zumarraga ondo egituraturako herria da. Herri barruko bide nagusi batzuk ditugu (Legazpi-Soraluze, Secundino Esnaola eta Urdaneta) eta Beasain-Durango egiten denean beste bat izango dugu: Euskal Herria hiribidea. Herria mailakatua dago eta goialdean babestutako etxebizitza asko egiteko aukera dago. Nire ustez, Goierriko herri garrantzitsuetako bat izateko ahalmena eta azpiegiturak ditugu: ospitale garrantzitsua dugu, kultur etxe garrantzitsua egin behar dugu... AAOOetan gutxienez hartzen den 10.300eko biztanlegoa gainditzeko ahalmena dugu. Urte batzuetan ez gara hazi, baina ondo antolatuta eta aurreikusita haztea komeni da; bestela bizi kalitatearen kalterako baita".

EA: "Kalebarren-en bi herriak elkartuko dituen plaza handi bat egin beharko litzateke"

Eusko Alkartasuna alderdia ia guztiz bat dator teknikariek proposatutako AAOOen berritzearekin, baina bi alegazio aurkeztu ditu: batean Kalebarreneko etxeak bota eta bertatik Ipintzaraino dena berritzea proposatzen du eta bestean herri barrutik pasatzen den trenbidearen zatia lurperatzea. Ikerne Badiola Euskara eta Hezkuntza batzordeburuak

EAJ: "Baimenen trukean udalerriak zenbait ordain jaso behar lituzke Arcelorrengandik"

EAJ izan da AAOO berrien dokumentuaren aurkako bozka eman duen alderdi bakarra. Jeltzaleek hainbat alegazio aurkeztu dituzte eta prentsaurrekoa eskaini zuten urtarrila bukaeran euren proposamenak azaltzeko.

Industria jarduerari dagokionez, EAJkoek ez dute batere argi ikusten Buztintza-Saltsamendin, Oianguren eta Egibiden

industrialdeak egitearena. Izan ere, "kudeaketa zaileko esparruak" direla ondorioztatu dute. EAJ Ezkio-Itsasoko "inguru estrategikoan" eskualde mailako poligono industrialak egitearen aldekoa da, "bertan azpiegitura garrantzitsuak egingo baitira".

Bestalde, jeltzaleak Arcelorri handitzeko aukera ematearen aldekoak dira, baina Arau berriak onartu aurretik Arcelor eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu beharko litzatekeela uste dute: "eraikin berriak egiteko ematen zaizkion baimenen trukean udalerriak zenbait ordain jaso ditzan". Jeltzaleen ustez Arcelorrek eraikin berrietan nolako laneskaintza eta inbertsioa egin behar duen azaldu beharko luke, berarentzat lan egi-

Pagotxeta: "San Salvador eliza dagoen lursailak ezin du erabilera pribatua izan"

Pagotxeta plataformak El Salvadorreko elizaren inguruko alegazioa aurkeztu du, baina beste gai batzuetan ere ez dago ados dokumentuarekin. Pagotxetaren posturaz hitz egiteko Juan Antonio Tornerrekin hitz egiten izan gara.

AAOOen berritze dokumentuan El Salvadorreko elizaren erabilera bere horretan finkatzea aurreikusten da, baina Pagotxetakoek egun indarrean dauden AAOOen arabera

Udalak lursail hura ezin ziola elizari utzi diote. "Gaia epaitegietara eraman genuen eta laugarrenoz arrazoia eman digute. Azken sententzian bere garaian eman zen lagapenak baliorik ez duela esaten da. AAOOen berritzean eraikin horren erabilera bere horretan mantentzea aurreikusten da, baina gure alegazioan sententzia AAOOen gainetik dagoela diogu. Lursail hori udalarena da eta ezin du erabilera pribatua izan. Tranpa egiten ari dira: plaza erdian etxe bat egin, Epaitegi Gorenak bota egin behar dela esan eta, ondoren, plaza erdian etxeak egin daitezkeela dion araua ateratzea bezala da. Hor eliza egiteko beste prozedura bat jarraitu behar zen. Oraingoan, gai horren inguruan Udalak arauak aldatzeko duen asmoa

HILABETE HONETAKO GAIA

eman digu bi alegazio hauen berri.

Badiolaren eta bere alderdi-kideen ustez, Kalebarreneko etxe berriak banan-banan egiteak "Urretxu eta Zumarraga biltzen dituen gune horretako arkitektura behin-betiko orekatzea oztopatzen du. Gainera, zonalde hori datorren 50 urtetan obratan izatea suposa dezake.

ten duten kamioientzat aparkalekua eta fabrikarako sarbide berria egin beharko lituzke, Egibideko lurra Udalaren esku utzi beharko lituzke (ingurumen aldetik egoera egokian) eta industrialdearen sarbideko lursailen lagapena egin beharko luke Udalak bertan sortzen diren trafiko arazoak konpondu ahal ditzan.

Merkataritzari dagokionez, EAJk jarduera hau bultzatzea "lehen-tasuntzat" jotzen du. Horretarako, alde zaharra (Kalebarren, Saskigileen Aldapa...) berreskuratzearen eta erdigunean aparkalekuak egitearen aldekoak dira. Hala, alderdi hau AAOOetan aurreikusten den Zelai-Arztiko lurrazpiko aparkale-

atzeratzea bota nahi dugu eta gero Udalarekin eta Gotzaingoarekin negoziatu beharko dugu".

Pagotxetakoak ez datoz guztiz bat AAOO berrien aurre-idazkiak proposatzen dituen beste hainbat ekimenekin. "Etxebizitza gehiegi egin nahi direla iruditzen zaigu. 4.000 etxebizitza dituen herri batean 10-15 urteko epean 1.531 egitea gehiegizkoa da. Orain arte egindako azterketen arabera, Zumarragan ez lirerateke 1.200 etxebizitza baino gehiago egin behar. Toki bakoitzean zenbat egin behar diren aztertu ondoren, Egibiden 450 etxe egitea, oso zaila izateaz gain, gehiegizkoa dela ikusi dugu. Alde batetik, herria gehiegi zabaltzea iruditzen zaigu:



Anton Arbulu: "Egibiden, 10-15 urtetan, etxebizitzak eta parke teknologikoa egingo dira. Betetze lanetarako inguruko altzairu-fabriketan sortzen den zepa erabil daiteke"

EAJ: "Ezkio-Itsasoko inguru estrategikoan eskualde mailako poligono industrialia egitearen aldekoak gara"

Pagotxeta: "Egibiden 450 etxe egitea, zaila izateaz gain, gehiegizkoa da"



Anton Arbulu: "Anexoan alokairu merkeko etxeak egin beharko lirerateke"

EAJ: "Zelaia eta pistak konpontzea eta *anexoa* egoki jartzea eskatu dugu"

Pagotxeta: "Babeseko etxeak gainerakoak egiten diren tokietan egin behar dira"

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



KABIA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



HILABETE HONETAKO GAIA

Gure ustez Kalebarrenetik Ipintzara dena berritu eta, plazaren Zumarragako aldea handituz, bi herriak elkartuko dituen plaza handi bat egin beharko litzateke".

EAKoek ere argi dute hori lorzea ez litzatekeela batere erraza izango. "Onurak eta kargak bizilagun guztien artean modu orekatuan banatuko litzuzkeen konpentsazio egitasmoa prestatu beharko litzateke eta inguru osorako plan berezia idatzi. Plan horrek Ipintza inguruan etxe altuagoak egitea ahalbidetu

beharko luke, promozio libreko 250 etxebizitza eta babes ofizialeko 100 egin ahal izateko. Honela, jabeak konpentsatzea ahalbidetuko litzateke".

Aipatu bezala, EAKoek trenbidea lurperatzea proposatu dute euren bigarren alegazioan. "RENFEko trintxeratik Beasain-Durango errepedeko Zumarragako saihesbide berriaren irteeraino trenbidea lurperatu beharko litzatekeela uste dugu". Izan ere, trenbidea "herrian dugun oztopo arkitektoniko

handiena da eta herritarren bizi-kalitatea kaltetzen du. Instituzio guztien laguntza lortu beharko genuke tamaina horretako egitasmoari aurre egiteko".

Eusko Alkartasunako kideen ustez, trenbidea lurperatzeak, "oinezkoen mugikortasuna hobetzeaz gain, etorkizunearan sor daitezkeen trafiko arazoei aurre egiten lagunduko luke, aparkaleku arazoa arinduko luke eta, batez ere, Zumarraga erdiguneko zabalgunek falta konponduko luke".

kua egitearen aldekoa da. Dena den, jeltzaleen ustez, "aurreikusitako garaje tokiak ez dira nahikoak eta gehiago egiteko modua aztertu beharko litzateke".

Aipatu bezala, Kalebarren berritzearen aldekoa dira; baina ez AAOOek jasotzen duten moduan: AAOOen zirriborroak Kalebarren etxe berriek egungoen antzerako ezaugarriak izatea proposatzen du eta EAJ, ordea, Ipintza eta Kalebarren bitarteko birmoldaketa bateratua egitearen aldekoa da. "AAOOei buruzko dokumentuan dagoen proposamena akats historikoa da eta berau konpondu ezean urte batzuk barru bere ondorioak pairatuko ditugu. Denbora luzean etekinik eman ez duen bide bati eusten dio eta jabeen esku uzten du kudeaketa, duen zailtasun tekniko eta

ekonomikoa kontuan hartu gabe".

EAJkoen ustez Ipintza eta Kalebarren bitarteko eremu osoa era bateratuan birmoldatuz soilik lortu daiteke Kalebarren jabeekin akordio batera heltzea. Inguru horretan 350 etxebizitza egitea proposatzen dute, horrela jabeekin akordiotara iristea errazagoa izango delakoan eta Kalebarren antolamendua bere herrigune izaeratik gertuago egongo delakoan. Etxebizitza hauekin batera, bi udalerrien erdigune izango litzatekeen 6.000 m²-ko plaza egitea proposatzen dute.

Etxebizitzen auziarekin loturik, alkateak Argixaoko *anexoan* babes ofizialeko etxebizitzak egin nahi ditu. EAJ, berriz, AAOOetan jasotzen den moduan, *anexoa* kirol-ekipamendu bezala man-

tentzearen aldekoa da. "Zumarraga, eskualdeko buru emateaz gain, bere buru izan behar du eta 20.000 biztanleentzat adinako kirol azpiegiturak eduki behar baditu, hala izan behar du. Gai hauetan ezin gara demagogian eta biktimismoan erori, Argixaoko estadioa atletismoa praktikatzeko eskualde mailan dagoen azpiegiturarik onena da".

EAJkoek jasotako okupazio datuen arabera, belar artifizialeko zelaiak gainkarga du. Hori dela eta, "lehenbailehen" belar artifizialeko zelaiak konpontzea, atletismo pistak konpondu eta hornitzea eta *anexoa* egoki jartzea eskatu dute. Horrekin lotuta, PSE-EEK *anexoan* egin nahi dituen babes ofizialeko etxebizitzak Etxeberrin, jatetxearen azpialdean, egitea proposatu dute.

erdiguneko etxeak husten ari dira eta mendira joan behar dugu bizitzera. Bestetik, Egibiden obra handiak egin behar dira etxeak egin aurretik, bertako lurra kutsatuta egon daiteke... Baina Egibiden etxerik egiten ez bada, babes ofizialeko oso etxebizitza gutxi eskainiko dira, 500 beharrean 200. Gainera Egibidekoak oso luze jo dezake. Babes ofizialeko etxeen premia badago, herrian egingo diren etxeen %40 babes ofizialekoak izan beharko lirake".

Beste puntu batzuetan ere ez daude guztiz ados teknikarien testuak proposatzen duenarekin. "Eitzan etxe altuenak goialdean, Urruti aldera, egin

behar dira eta alderantziz izan beharko litzatekeela uste dugu".

Bestalde, Pagotxetakoak Arcelor handitzearen alde daude, baina baita egungo eta etorkizuneko instalazioek ingurumenean duten eta izango duten eraginaren azterketa egitearen alde ere. "Enpresa horrek ingurumenean zein eragin duen ikusi behar da behingoz. Handitu nahi badute handitu dezatela, baina kontrolpean".

Komunikabideei dagokienez, Pagotxeta ez dator bat AHTak AAOOetan jasotzen duen tratamendurakin. "AHTa aipatzen da, egitasmo hori inondik-inora zalantzan jarri gabe. Gure

ustez, Udalak bere eskuan dauden erabaki guztiak geldiarazi behar ditu eta ez ditu ontzat eman behar gai hau eztabai-datu arte: ingurumenean zer eragin duen, zein hobekuntza ekarri behar dituen, Ezkion geltokia egon behar den, nolakoa izan daitekeen... aztertu behar da. Bestalde, geltoki intermodalari dagokionez, bi Udalak eskutik joatea nahi dugu bien egitasmoak bateragarriak izan daitezzen".

Bukatzeko, Pagotxetakoak ere Argixaoko *anexoan* etxebizitzak egitearen aurka daude. "Babes ofizialeko etxeak gainontzeko etxebizitzak egiten diren tokietan egin behar dira".

autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**

Zure negozioan, atera probetxua telefonia mugikorrari.

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Telefono mugikorra eguneroko lanean funtsezko tresna da. Mintegi honetan, **zure negozioko informazioa egunean edukitzeko, gailu eta aukera berrien bidez eskaintzen dituen erabilera eta aplikazioak erakutsiko dizkizugu.** Honela, alferrikako deirik edo bidaiarik egin ez dezazun.

Goierri-Urola Garaia
martxoak 3
ORDIZIA
Goierri Lanbide Eskola
Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com


cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:




Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



www.megadenda.com

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599



Joxe Mari Gabiria

Nire eskola ez daukat saltzeko

Treanean nindoan, Donostiarantz, nire begiak ustez aurpegi ezagun batean pausatu zirenean. Bihotzaren taupadak azeleratu egin zitzaizkidan, bat-batean. Nengoen lekutik altxa, dozenerdi pauso egin eta bere aurrean planto egin nuen.

Nor nintzen esan nion, eta bera nik uste nuena ote zen galdetu hurrena. Une batetik bestera gorputzeko odol guztia aurpegiaren bildu zitzaion, eta urduri jarri zela sentitu nuen. Nahiko izan zen, hogeitun urte lehenago, Zumarragako hermanotako eskolan, bi ikasturtetan, nire maisu izana zen Hermano Joakinen aurrean nengoela jakiteko.

AKORDATZEN AL ZARA?

Ez dut esango hermanotan pasa nituen zortzi urte luze haietako oroitzapen den-denak atseginak direnik. Hermano Joakin berak ere bazekien askotan estu samar hartzen gintuztela (garaian garaiko kontuak) eta, behar bada, horrexe-gatik jarri zen urduri nire burua aurkeztu nuenean. Baina, orohar, karinoz gogoratzen ditut eskola urte haiek eta ez daukat inolako penarik, bere garaian, nire gurasoek eskola hura aukeratu izanaz nik probetxuzko gizon izaten ikas nezan ("probetxuzko gizon", horrela esaten zen orduan).

REAL ZARAGOZA F.C.REN FOROFO

Gauza xeble samarra gertatu zitzaigun Batxillerreko lehen bi ikasturteetan Don Modesto Moya Zaragozatik etorritako maisu zenaren ikasle izan ginen gehienoi. Futbolean, bat-batean eta geuk hala nahi gabe, Zaragozaren forofo bihurtu ginen. Erreala bigarren mailan zegoen orduan, eta guk inondik-inora, jokutzen zuenaren kontra jokutzen zuela, Zaragozak irabaztea nahi izaten genuen. Galtzen bazuen, astelehen goiza ohi baino gogorragoa izaten zen guretzat. Geroztik, sinpatia diot Zaragozari.

DON GONZALOREN PRENTSAURREKOAK

Don Gonzalo Matxin maisua ere Zaragozatik etorria zen. Nafarroako Esa urtegitik oso gertu dagoen Sos del Rey Católico herri politean sortua zela esaten zigun. Haren ahotik entzun nituen lehen aldiz "rueda de prensa" hitzak.

Nire lanbidea medio, makina bat prentsaurrekotan egona naiz geroztik. Baina haren prentsaurrekoak bereziak ziren. Bera maisuaren mahaian eserita zela, gelaren inguruan jarrarazten gintuen gu, eta banan-banan harengana hurbildu ahala galdera bonbardaketa egiten hasten zen: "¿Birmania capital?": Rangún erantzuten asmatu ezean eskua luzatu eta hark makilkada beroa.

BARATZURIAREN BERTUTEAK

Osasunarentzat baratzuriak dituen bertuteak aipatzen hasi eta zerrenda luzea ateratzen dute medikuek: odolaren zirkulaziorako primerakoa, infekzioak sendatzeko bikaina, tentsioa jaisteko ezin-hobe...

Gure garaiko ikasleek gastu handi samarra egiten genuen baratzuritan. Esku-ahurrak baratzuriz igurtziz gero makilkadak min txikiagoa ematen zuela asmatu zuen norbaitek. "¿Quién ha comido ajo crudo?, ¡que aquí huele que apesta!" galdetu zuen Hermano José Luis, "Susik", frantse-seko eskola ematera etorri zen arratsalde batean. Gaiztakeriatxoa egin duela dakienaren barretxoa irten zitzaigun bigarren batxillerreko ikasle koitaduoi.

75 URTEKO IBILBIDEA

Hermanotako eskola abian jarri zutela 75. urteurrena ospatzen ari garen honetan bor-borka datozkit oroitzapen goxok: igandeeetako pelikulak: "Uno, dos, tres", "Cuadro, cuadro"... Hortz-haginetan erantsita geratzen ziren ziri-karamelu eder erraldoi haiek. Berrogei "bale" osatu ondoren, arratsalde pasa Goiko-Txabola edo Antio aldera egindako paseoak, "ejercicios espirituales" egitera joanda, lasalletarren San Asensioko konbentuko ardo gorri goxoa...

Baina, beste guztien gainetik, hermanoek kolejoan bertan antolatu zuten gazteleku edo klubak tarte berezi eta kuttuna izango du betirako nire oroitzapenetan. Ez dut uste merezi adinako aitortzarik egin izan diegunik fraileei orduan gurekin izan zuten ausardiagatik. Beranduegi izango ez delakoan, eskerrik asko.

"... Oh gran patrón del niño y del maestro..."



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Bertsolaritza gustuko al duzu? "Martxoan Bertsoa" ekitaldi sortan parte hartzen al duzu?



Jorge Andueza

"Martxoan Bertsoa" oso ondo dagoela iruditzen zait, herrian giro ona sortzen baitu. Aurten ere herriko bertsolarien txapelketan parte hartuko dut, noski. Lan txukuna egitea espero dut. Izan ere, larunbatetan bertso eskolara joaten naiz eta horrek asko laguntzen dit. Ni, euskaldunberria izanik, gai baldin banaiz, beste edozeinek ere egin dezakeela uste dut. Maialen Lujanbio da nire bertsolaririk kuttunena.



Leire Lanberri

Bertsolaritza ez zait gehiegi gustatzen. Beharbada hori dela eta ez nuen "Martxoan Bertsoa" ekitaldi sortaren berri. Aurten, dagoeneko horren berri izan arren, ez dut uste bertso giroan murgilduko naizenik.



Mainer Del Rio

Aurten badut bertso saioaren bat ikusteko asmoa. Izan ere, bertsoak beti jarraitu izan ditut telebista bidez. Bestalde, abendua aldean Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko asmoa dut. Dena den, ez naiz bertso eskolara joatera animatzen. Amets Arzallus dut bertsolaririk gustukoena.



Iñaki Lizarralde

Tabernan oso gustura egoten gara herriko bertsolarien arteko txapelketa ikusten. Gainera, beharrezkoa da jendeari zer edo zer berria eskaintzea. Tabernako bezero batzuek nahiago dute ohiko giroa, baina beste asko txapelketa ikustera bertaratzeko dira. Ni ez naiz oso bertsozalea, baina txapelketa egunean sortzen den giroa nabarmenduko nuke.

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Muntzia e Sustatzailea Elkartea
HERCE
Elektrizitatea, S. S.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Gaur eta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz

Publizitatea sartzeko deitu
647319757 edo 607530424
telefono zenbakietara
Merkea eta ona!

BIONA


ARozTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Mikel Rodriguez, us

Rodriguezek "Nariz de Oro" ardo dastatzaile tx



Azken urteotan, oro har, ardo gutxiago baino hobea edaten dugula esan daiteke. Ardoa edatetik dastatzera edo gozatzera pasatu garela dirudi. Ohitura aldaketa horretan eraginik izan duen herritarrik bada, hori Jose Mari Lete da. "Peli"-k, ardo dastaketa jardunaldiak antolatzeaz gain, Laket eta Zuhaitzi tabernetako langileak trebatu ditu. Tabernari hauetako batek, Mikel Rodriguez zumarratarrak, Gazte Onenaren Saria eta finalera sailkapena irabazi zituen Iruñean jokatu zen "Nariz de Oro" lehiaketako kanporaketan. Finala ekaina hasieran izango da Madrilen.

Zenbait urte daramatzazu tabernari lanean?

24 urte ditut eta bost urte daramatzat dagoeneko tabernari lanean. Laket tabernan hasi nintzen eta orain Zuhaitzin lan egiten dut.

Nolatan ardoaren munduarekiko jakinmin hori?

"Peli"-ren eraginez, Laket eta Zuhaitzin lan egiten dugun guztiok dakigu zer edo zer ardoaz. Ardo asko eskaintzen dizkigu probatzeko eta probatuz probatuz ikasi egin dugu. Buruak agenda baten moduan funtzionatzen du. Coca-Cola asko edaten duen pertsona batek Coca-Cola eta Pepsi-a bereizten dituen moduan, ardoarekin antzera gertatzen da. Bakoitzaren ezagueriak bereizten ikasten da.

Probatze kontua da, beraz.

Probatzea, ardoari buruz hitz egitea eta "Peli"-ri entzutea. Berarengandik, berak antolatzen dituen dastaketetan eta bodegetara egindako txangoetan asko ikasi dugu. Urtero bi edo hiru bodegetara joaten gara.

Tabernariak ardoan adituak izatea beharrezkoa dela uste

al duzu?

Azken finean, guk saltzen dugu ardoa eta zer saltzen ari garen jakin beharra dugu. Ardo mota ezberdinak daude eta batzuei ardo mota batzuk gustatzen zaizkie eta batzuei beste batzuk. Ardoa nolakoa den jakiteak bezero bakoitzari gusta dakiodeena eskaintzen laguntzen du.

Tabernan hasi aurretik ardo gustukoa al zenuen?

Ez nuen ardo probatzeko aukerarik. Ardo gustuko izateko ardo ona probatzeko aukera izan behar da eta guk horretan zorzea izan dugu. "Peli" ondoan izatea oso garrantzitsua izan da, ezin baitut ardotan hainbeste gastatu.

Ardoa taberna gutxitan zainduko da bi hauetan bezainbeste...

Donostiako taberna askotan ardo oso onak dituzte, baina han lasai asko kobratu dezakete bi euro eta erdi ardo baten truke. Hemen bi euro eta erditan kobratuz gero... Herriko batzuk Donostian diru hori ordaintzeko prest daude, baina hemen ez.

Jendeak gai honen inguruko

Usaimen fineko mutila

txapelketako finala jokatuko du ekainean Madrilen

jakinmina duela uste al duzu?

Jendeak interes handia du. Batzuek oinarriak ezagutzeko afariren bat antolatzeko eskatu didate, esaterako. Ardoa modan dago.

Zuk zeuk ardo bildumarik ba al duzu?

Etxean badituzte botila batzuk, bai. Lagunekin elkartera joaten naizenean ardoa eramaten dut, batzuetan dastatzeko eta beste batzuetan afarian edo bazkarian edateko. Halakoetan, ardoak ez dio janariari ezer kendu behar, ezta alderantziz ere.

Ez al duzu ardo munduan lan egiteko prestatzea pentsatu?

Enologia ikastekotan izan nintzen, baina magisteritza egiten ari naiz. Dena den, oraindik ez dut guztiz baztertu enologia ikastea. Iruñara nirekin joan zen Beasaingo lagun batek asteburuetan bi urteko enologia masterra egin zuela esan zidan eta dexente tentatu ninduen, baina denbora behar da eta oso garestia da. Ez dut oso argi zer egingo dudan, baina, egia esan, ostalaritza asko atsegin dut eta horretan jarraitu nahiko nuke.

“Ikasketak egin dituen jendea finaletik kanpo gelditu da”

Txapelketa batean parte hartu duzun lehen aldia izan al da?

Bai. Iruñeko kanporaketan Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Frantzia hegoaldeko 65 lagunek parte hartu genuen. "Nariz de Oro" txapelketa "Vino y gastronomía" aldizkariak antolatzen du eta "Joven Promesa" saria lortu nuen.

Nolakoa izan zen txapelketa?

Goizean 37 ardo probatu eta puntuatu genituen. Guk emandako puntuazioaren arabera ekainean Madrilen izango den finalerako ardoak aukeratu zituzten. Bazkalostean, bost ardo eman zizkiguten, zein ardo ziren esan ziguten eta bostak probatu genituen. Handik atera eta itzuli ginenean ardo bakarra eman ziguten kopa beltz batean. Usaimenaren bidez bost ardo horietako zein zen asmatu eta bere ezaugarriak jarri behar genituen. Dirudiena baino askoz ere zailagoa da zein ardo den asmatzea. Ez nuen asmatu, baina bere ezaugarriak ondo azaldu nituen.

Ekaineko finalerako prestatu egin beharko duzu. Zer edo zer berezia egiten ari al zara?

Finaleko ardoak zeintzuk diren begiratu eta ahal ditudan guztiak probatu

behar ditut.

Halako txapelketetara joan aurreko egunetan gorputza zaindu beharko duzue...

Ni erretzailea naiz, baina erretzea ez da ona noski. Hori dela eta, aurreko egunetan gutxi erre behar da eta parranda egitea ere ez da komeni. Bestalde, ezin dituzu zure jateko eta edateko ohiturak aldatu. Izan ere, ohiturak aldatuz gero gorputza ere aldatu egiten da eta usaimena bera ere bai. Dena den, lehiaketan mundu guztiak erretzen zuen. Ardoei buruz dakiten asko komertzial lanetan aritzen dira eta lan horretan afari gehiegi egiten dira, ez dute asko zaintzerik.

Zer espero duzu?

Ez da erraza izango! Batzuek lau edo bost usain ateratzen dizkiote ardo bakoitzari, profesionalek parte hartuko dute... Dena den, han ere gazteen saria izango da eta ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz.

"Peli" zutaz harro egongo da...

Sekulako poza hartu zuen. Izan ere, horretan urte asko daraman jendea eta ikasketak egin dituen jendea kanpoan gelditu da. Zorte kontua ere bada.

Gustuko ardoa?

Klasikoen artean "Tondonia" oso gustukoa dut eta modernoek artean "Remírez de Ganuza", esaterako. Ardo on asko daude eta latza da. Izan ere, afaltzera joaten naizenean ez naiz edozerekin konformatzen.

Probatu ez dituzunen artean, zein probatuko zenuke gustura?

"Vega Sicilia", "Cirsion"... mitikoak dira. Botila bakoitzak 40.000-50.000 pezeta inguru balio du. Lehengoan telebistan munduko botilarik garestienak, frantsesa, 170.000 euro balio duela ikusi nuen.

Afari edo bazkari berezi baterako zein ardo gomendatuko zenuke?

Gonbidatuen arabera hautatu behar da. Ardoa izugarri atsegin ez duen jendea gonbidatzen baduzu, ardo klasikoa jarri behar da: edateko errazagoa. Besteak konzentratuagoak dira, biziosoztat.

Egunero edateko moduko artean zein gomendatuko zenuke?

"Luberrí". Tabernan dugun urteko oso ardo ona da. Dena den, nik etxean bazkaltzeko ura edaten dut.

Txuria eta gorria ere gustuko al dituzu?

Txuria bai, baina gorria ez dut gehiegi atsegin. Oso suabea iruditzen zait. Dena den, badaude ardo gorri oso onak. Ruedan, Errioxan, Katalunian... ardo txuri oso onak egiten dituzte. Toki guztietan egiten dituzte ardo onak. Nafarroan ere ardo bikainak egiten ari dira orain.

Zer diozu txakolinaz?

Batzuk oso-oso goxoak dira. Hemen daukaguna izugarri ona da. Goizetan zer edo zer hartzen dudanean txakolina hartzen dut. Indar handia hartzen ari da.

Otsailean egonik, ezin sagardoa ahaztu...

Batez ere sagardotegiko saltsa atsegin dut: denoi gustatzen zaigu ondo jatea eta edatea.

ZUEK BAI JAKIN!

Arantxa Artetxe, Uniber



Herriotan badira, lanean makina bat urte eman ondoren, guztiok izenez behintzat ezagutzen ditugun irakasle batzuk. Irakasle hauen artean dugu Arantxa Artetxe zumarratarra. Arantxak 42 urte eman zituen irakaskuntzan, lehenengo

Bilboko eskola batean eta gero Iparragirre Institutuan. Bertan 22 urte eman zituen, Institutuak 1.000 ikasle pasatxo izan zituen garaia barne. Ehundaka dira Arantxarekin Unibertsitate aurreko ikasketak egin dituzten herritarrak.

2005eko otsaila

tsitate atariko irakaslea

Irakasle izan aurretik ikasle izan zinen, noski. Non egin zenituen ikasketak?

Umetan egun Kutxa dagoen tokian mojek zuten eskolara joan nintzen, baina 10 urte besterik ez nituela Donostiako Peñafiorida institutura bidali ninduten. Batxilergoa egin ondoren, Zaragozara joan nintzen filosofia eta letrak karrera egitera. Nire ahizpa ere institutuko irakaslea izan zen eta Zaragozan ikasi zuen, kimika hain zuzen ere. Garai hartan Zaragozan, Bartzelonan, Madrilan... bakarrik zeuden unibertsitateak. Unibertsitako ikasurterik tristeena azkena izan zen, urte hartan hil baitzen nire aita.

Non hasi zinen lanean?

Oso argi nuen irakaskuntzan lan egin nahi nuela, beti gustatu baitzait ez dakienari irakastea. 42 urtetan lan egin dut irakaskuntzan, erraz esaten da... Bilbon hasi nintzen lanean, 1949an. Egun ia herri guztietan daude institutuak, baina orduan hiriburuetan bakarrik zeuden. Hori dela eta, eskola pribatu batean hasi nintzen lanean: 1949tik 1969ra familia oneko nesken eskola batean, "Colegio de las Esclavas"-en, lan egin nuen. Letretako klaseak ematen nituen eta oraindik garai hartako ikasle askorekin topo egiten dut udan. Garai batean nire ikasleak izan zirenak ere nagusiak dira jada...

Bakarrik bizi al zinen?

Senitarteko batzuekin bizi nintzen, garai hartan ez baitzen batere arrunta pisu batean bizitzea.

Nolatan etorri zinen 1969an Urretxu-Zumarragara lan egitea?

Institutua 1967an ireki berria zen eta irakasle faltan zeuden. Nire ahizpa lan egiteari utzia zen, baina Institututik deitu zuten eta bera ere klaseak ematen hasi zen. Ahizpa kimikaria da eta matematika klaseak eman zituen.

Zer aurkitu zenuen etorri zinenean?

Garai hartan, 60ko hamarkadan, kanpotik jendea etorri zenean, institutuen

“boom”-a izan zen. Izan ere, seme-alabak eurek baino gehiago izatea nahi zuten. Institutu asko ireki ziren eta jendeari unibertsitateko ateak ireki zizkieten. Izan ere, lehenago hiriburuetara joan beharra zegoen batxilergo ofiziala egitera. “Por libre” egiteko maisu bati ordaindu behar zitzaion eta gero azterketak ateratzea zailagoa zen. Bi urtetan institutuko zuzendaria izan nintzen eta 1.000 ikasle izatera heldu ginen. Egun Lizeoa den eraikinean geunden, txiki gelditu zitzaigun eta patioan barrakoiak jarri

“Zorte handia izan dut, atsegin dudan horretan lan egin baitut eta lankide onak izan baititut”

genituen. Ikasle gehienak kanpotarren seme-alabak ziren eta garai hartan herrian ez zen euskaraz batere hitz egiten. Egun euskara askoz ere gehiago hitz egiten da, baina oraindik ere asko hitz egiten da erdaraz.

Hainbeste ikasle izanda, irakasleak ere asko izango zineten...

40tik gora irakasle ginen: nafar asko, gaztelarrak, andaluziarrak, aragoarrak, kataluniarrak... Izan ere, garai hartan hezkuntza estatuaren esku zegoen guztiz eta irakasle premia handia zegoen. Oso jatorri ezberdinekoak ginen arren, gure arteko oso harreman ona genuen.

Hainbeste ikasle eta irakaslerekin, Institutua berehala txiki gelditu zen.

Institutu berria askoz ere handiagoa zen eta lanerako askoz ere baldintza hobek zituen. Udalek, Legazpikoak barne, Institutu berria egitea bultzatu zuten. Izan ere, egunero Legazpitik ikaslez betetako autobus pare bat etortzen zen.

Institutu berria egitea oso pozgarria izango zen...

Bai. Urrun samar dago, baina ez du axola. Independentzia handia ematen du eta bazkaltzeko-eta Etxaburu ondoan du. Gainera, oso toki polita da, zabala, ikasleek haizea hartu dezakete...

Zein ikasgai eman zenituen Institutuan?

Ikasle zaharrenekin lan egin nuen batez ere eta letretako ikasgai ia guztiak eman nituen: geografia, historia, filosofia, literatura... Gustukoena artea, historia eta geografia ditut. Irakasle oso onak izan nituen eta horrek eragin handia du. Bestalde, nire etxean beti asko irakurri da, aita oso zaletua zen, eta liburu asko izan dira. Egun ere, gehien atsegin dudana irakurtzea eta marraztea da.

Zeintzuk dira irakaskuntza munduko oroitzapenik onenak?

Zorte handia dut, atsegin dudan horretan lan egin baitut eta lankide onak izan baititut. Bulego batean jarri izan balidate, hil egingo nintzateke. Hori dela eta, zuzendari izan nintzen urteak ez ziren batere onak izan. Eskerrak idazkaritzakoek izugarri lagundu ninduten... Irakaskuntza asko atsegin dut, baina mutilekin neskekin baino hobeto moldatu naiz. Mutilek astakeriaren bat egiten zuten, baina traturako askoz ere errazagoak ziren. Neskek malezia handiagoa dute. Mutilak, kanpora joaten ginenean, zapatilak jarri eta ibiltzeko prest zeuden; baina neskek presumitu beharra zuten...

Momentu txarrak ere pasako zenituzten.

Grebak, geldialdiak... izan genituen. Izan ere, gaizki ordaintzen zuten. Momentu horietan norberaren okerrena azalera irteten da, lankideen arteko liskarrak izaten dira... Bestalde, Beasainen eman nituen bi urteetako oroitzapen onik ere ez dut. Oposizioetara aurkeztu eta plaza lortu nuenean, 70eko hamarkadan, izan nintzen bertan. Institutu hura oso politizatu zegoen.

ZUEK BAI JAKIN!

Herritar asko eta asko zure ikasleak izan dira...

Denetik izan dut: ikasle onak, txarrak, erdipurdizkoak..., baina pertsona txarrak ez zait tokatu. Pello Gonzalez eta Josu Jon Imaz, besteak beste, nire ikasleak izan ziren. Josu Jon Imaz Institututik pasa den ikasle onetsuenetakoa da. Adimen pribilegiatua zuen. "Xagu" deitzen zutela uste dut: letra txiki-txiki zuten eta asko zekien, ez zegoen berari ezer errepikatu beharrik.

Zer nolako irakaslea zinen?

Sekula ez naiz klase ematera joan eman beharrekoa prestatu gabe. Izan ere, ikasleek argi izan behar dute gai hori domeinatzen dutzula. Horretaz gain, ikaskide onak izaten irakatsi behar zaie. Dakien ikasleak ez dakienari laguntzea zoragarria da. Hori egiten ez duena ez da sekula pertsona ona izango. Garrantzitsua pertsona onak hezitzea da. Bestalde, oso serioa, gogorra eta zorrotza nintzela esaten zuten.

Noiz jubilatut zinen?

1989-1990 ikasturtearen ondoren jubilatut nintzen. Ikasturte hartan Berlingo Harresia bota zutela oroitzen dut. Izan ere, nire aita hil zen data berean, azaroaren 9an, bota zuten. Nirekin batera Maritxu Ugalde urretxuarra jubilatut zen. Bera Natur Zientzietan lizentziatua da.

Hezkuntza mundua asko aldatu dela uste al duzu?

Nire garaian ez nuen aldaketa handirik somatu, baina azkenaldian asko aldatu dela diote. Irakaskuntza egun beldurgarria omen da. Ikasleek irakasleei aurre egiten omen diete eta gurasoek ez omen dute batere laguntzen. Gurasoen laguntza oso garrantzitsua da: gurasoek irakaslearekin bat lan egiten badute ikaslea aurrera ateratzen da, baina gurasoak seme-alaben alde jartzen badira... Garrantzitsua ikasleak langileak izatea da, alperrekin ez dago zereginik. Nire garaian gurasoek euren seme-alabei asko exijitzen

Arantxak makina bat azterketa zuzendu ditu argazkian ageri den bere etxeko txoko kuttunean.



“Kultura gauzarik garrantzitsua da: hori ezin dizu inork kendu. Segurtasuna ematen du, ulertzen laguntzen du...”



Arantxak bidaiatzea oso gustuko du. Argazki hau San Esteban de Gormaz-en (Soria) atera zuten 1997an.

zieten, baina gauzak asko aldatu dira. Bizitzako gainontzeko alorretan ere jendea ez da lehen bezain arduratsua. Hemen inork ez ditu lan gogorrak egin nahi jada eta ez dakit zer gertatuko den. Lehen ikasleek egiten zituzten kamarero lanak, orain kanpotik datozenek batez ere.

Ikasle ohi askorekin hartuemanan izango duzu.

Kalean topatzen ditudan ikasle ohi batzuek bidaiatzen dutenean nire arte klaseak gogoratzen dituztela esaten didate, klase horiei esker arteaz apur bat ulertzen dutela. Horrek asko pozten nau. Nik beti esaten nien moduan, ezer ez dakienari ziria sar diezaioke, baina dakienari ziria sartzea zaila da.

Kulturari garrantzia handia ematen diozu...

Kultura gauzarik garrantzitsua da: hori ezin dizu inork kendu. Kulturak segurtasuna ematen du, gauzak ulertzen laguntzen du, aurrera egiten laguntzen du...

Ez diozu sekula ikasteari utzi...

Ñaki Linazasoro zenari asko zor diot. Berarekin bidaia asko egin ditut eta berarekin joan izan ez banintz ezagutuko ez nituzkeen gauza asko ezagutu ditut. Berak ere artea eta irakastea asko atsegin zituen. Berarekin azkenekoz Normandia eta Bretañara joan nintzen eta bidaia zoragarria izan zen.

Bidaiatzea ere asko atsegin duzu, beraz.

Europa ia oso-osorik ezagutzen dut, urtero bidaien bat egin baitut: Alemania, Suiza, Eskozia asko atsegin dut, Frantzia eta Italia goitik-behera ezagutzen ditut... Gehien atsegin dudana Mont Saint Michele da: Normandia eta Bretaña artean dago, itsasgoran irla bilakatzen da eta Erdi Aroko abadia zoragarria du. Gehien atsegin dudana herrialdea, berriz, Italia da: ez naiz bertara joateaz nekaten. Behin Florentzian ez ziguten bazkaria ateratzen eta niri bost

ZUEK BAI JAKIN!

axola zitzaidan: bertan egote hutsa zoragarria zen. Bihar bertan Italiara joango nintzateke berriro gustura asko. Espainiak ere ikusteko asko du, Gaztelako herri asko zoragarriak dira. Donostia, esaterako, oso polita da; baina Toledo miragarria da: bertan kultura ezberdinen aztarnak ikus daitezke.

Egindako bidaiei eta arteari buruzko hitzaldiak ere ematen dituzu.

Jubilatu ostean hitzaldi batzuk eman ditut, baina ez dut uste gehiago eman go dudarik. Izan ere, asko nekatzen naiz eta hanka sartzearen beldur naiz. Mairikoei diapositiba emanaldiak eskaini izan dizkiet, baina egun ez dituzte diapositibak saltzen jada.

Artezalea izateaz gain, artista ere bazara: marraztu egiten omen duzu.

Txikitatik orduak eta orduak eman ditut marrazten. Ez dut inorekin ikasi. Artea asko atsegin dudanez, artelanak marrazten ditut batik bat. Arkatz biguna eta plumila erabiltzen ditut marrazteko. Garai bateko Zumarragako jaietako egitarauetan nik egindako marrazki asko ageri dira: Legazpiren estatua, Antio, Zumarragako parrokia... Virgilio Alvarez inprimatzaileak eskatzen zizkidan marrazkiak. Plumilaz eraiñinak-eta marrazten ditut batez ere eta arkatz bigunaz, berriz, erretratuak. Urte batean Institutuan marrazketa klaseak eman nituen.

Ez al dituzu sekula zure lanak ikusgai jarri?

Ez, baina erakusketa asko ikusi ditut ordea. Bilboko museoak, esaterako, primeran ezagutzen ditut. Guggenheim-en askotan izan naiz, baina niretzat benetako museoa Arte Ederretakoa da. Bilbon klaseak ematen nituenean, askotan eramaten nituen ikasleak museora edo elizak ikustera.

Bukatzeko, jubilatut zinenetik zertan ematen duzu eguna?

Dexente irakurtzen dut, puntulanak egiten ditut... Oso gutxi marrazten dut dagoeneko, begiak nekatzen baitzaizkit. Nire bizitza hezkuntzari eskaini diot. Ezkongabea naiz eta irakaskuntzan burubelari aritu naiz. Igande arratsalde asko eman ditut ikasleen azterketak zuzentzen. Izan ere, ikasle asko genituen eta batzuen letra ez zegoen ulertzetik.

Gerrate garaiko haurtzaroa

Arantza Artetxe jaiotzez zumarratarra den arren, bere ama eta aita ez ziren bertan jaiotak. Gurasoak lan kontuengatik etorri ziren Zumarragara. "Nire aita, Inazio, azpeitiarra zen, medikua. Zumarragara etorri aurretik Mutrikuko medikua izan zen. Hona 1920. urte inguruan etorri zen, ondo komunikatutako herria zelako. Egunduz Buscatarren etxea den horretan biziginen eta, orduan oso pediatria gutxi zeudenez, Gipuzkoa osoko haurrak gure etxera ekartzen zituzten. Zumarragako mediku titularrak ere bazen, baina 1937an kargutik kendu zuten abertzalea zelako. RENFEko eta Urolako Treneko langileen medikua ere bazen eta hortik ere kendu zuten".

Artetxetarrek, garai hartan beste askok bezala, urte oso gogorak pasa zituzten. "Hasieran oso gaizki pasa genuen, baina pixkanaka hemengo eta inguru herrietako jendea berriro aitaren kontsulta pribatura etortzen hasi zen. 1948an herriko mediku plaza itzuli zioten, baina urte hartan bertan hil zen. Sei seme-alaba aurrera atera zituen amak, batez ere, gorriak pasa zituen. Ez dadila sekula halakorik berriro suerta...".

Gerra garaian Arantza haurra zen arren, aitaren sufrimendua batez ere bizi-bizirik du. "1925ean jaio nintzen, baina ondo oroitzen dut. Ez nuen ezer ulertzen, baina zer edo zer gertatzen ari zela konturatzen nintzen. Zenbait gauza ez ditut ahaztu: aitaren sufrimendua, tolerantzia irakatsi zigula... Aita pertsona zoragarria zen eta gutxi bezala maite zuen lana. Gehien eskertzen diodan gauzetako bat gu ikastarazi izana da. Izan ere, garai hartan neskek ez zuten ikasketarik egiten. Aita oso pertsona jantzia zela kontuan izan behar da. Egunkarian idazten zuen, hizlari oso ona zen... Jose de Artetxe idazlearen anaia zen".




HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70





arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Mikel Telleria eta Santi

Telleria urretxuarrak Sevillako maratona



Igande honetan Mikel Telleria urretxuarrak Sevillako maratona korrituko du. Bera animatzera bost lagun joango dira eta aitzakia horrekin astebeteko oporraldia igaroko dute Andaluzian. Sevillako planak argi erakusten du zer den kirola

Mikelentzat: ondo pasatzeko eta, bide batez, osasuna zaintzeko jarduera. Mikelekin eta berearen pareko kirolaren filosofia duen Santi Perez prestatzailearekin hitz egiten izan gara kirolari buruz.

Noiz hasi zinen kirola egiten, Mikel?

Mikel: Gazte-gaztetan ez nintzen batere kirolaria. 20 urte pasatxo nituela egin nuen lehen aldiz Behobia-Donostia, baina oraindik parrandazalea kirolaria baino gehiago naizela esango nuke.

Korrikan bakarrik aritzen al zara?

Mikel: Denetik egiten dut: korrika apur bat egiten dut, baina poteak hartzera ere joaten naiz. Ez dut urte osoa korrika ematen, baina Iñaki Beitiaren omenezko marxa ere urtero egiten dut eta horretarako ere mendira joan beharra dago.

Zenbait Behobia-Donostia egin dituzu?

Mikel: Korrikan hasi aurretik Donostiako lehen maratona eman nuen izena eta lorik egin gabe joan nintzen. Apustu modukoa zen eta 25 kilometro besterik ez nituen egin. Osterantzean Behobia

11 edo 12 aldiz egin dut, Gasteizko maratoni erdia lau bat aldiz egin dut, Azkoitia-Azpeitia hiru bat aldiz...

Zenbat maratoni egin dituzu?

Mikel: Hiru, guztiak Donostian. Azkena duela bospasei urte egin nuen. Oraingo honetan hiru lagunek New Yorkera joateko asmoa genuen, baina, oso garestia ateratzen zela eta, atzera egin genuen. Azkenean Sevillara joatea erabaki dugu, baina nik bakarrik parte hartuko dut maratona. Oporretara joango gara: ostira-lean atera eta astebete emango dugu bertan. Maratona aitzakia hutsa da. Dena den, New Yorkeko maratona egitea sekulakoa izango da.

Santi: Londonekoa ere sekulakoa da, baina oso zaila da izena ematea.

Mikel: New Yorkeko maratona

izena ematea 33.000 pezeta kostatzen da eta egun horietan bidaia askoz ere garestiagoa da.

Santi: Bidaia agentziek dorsal-piloa erosten dituzte eta gero bidaiak antolatzen dituzte.

Markaren bat hobetzeko helburuarekin joango al zara Sevillara?

Mikel: Bukatzea gustatuko litzaidake, baina lehengoan 21 kilometro egin eta kokoteraino bukatu nuen.

Santi: Ondo asko dakizu lasterketa eta entrenamenduak ez direla gauza bera... Lasterketan animatu egiten zara.

Mikel: Bai, baina orain arte egin dako hiru maratona oso gaizki pasatu dut. Dena den, beti hobera egin dut: lehen maratona 3 ordu eta 56 minututan egin nuen, bigarrena 3 ordu eta 41 minututan eta

Perez: kirola gozagai

ian parte hartuko du igande honetan

hirugarrena 3 ordu eta 39 minututan.

Santi: Zuk baino askoz ere gehiago entrenatzen duen jendeari asko kostatzen zaie maratoia denbora horretan egitea.

Mikel: Buru aldetik oso gogorra izan behar da maratoia bukatzeko.

Santi: Entrenatzeaz gain, gauzak oso argi izan behar dira. Lasai joan behar da eta denbora pasatzen utzi. Zein erritmotan korrika egin behar den jakitea oso garrantzitsua da, baina eliteko atletek ere batzuetan huts egiten dute...

Dena den, Mikel, kirola ez da obsesioa zuretzat.

Santi: Mikelek poteak hartzen ditu, egun batean entrenatzerik ez badu ez da larritzen... Korrika egitera joaten denean gozatu egiten du eta kitto.

Mikel: Dena den, entrenatu gabe ez dago zereginik. Azken aste hauetan behartuta joan naiz korrika egitera, maratoirako egun gutxi falta zirelako.

Jendeak ez al du gehiegi estutzen bere burua, Santi?

Santi: Atletei gozatzen ez badute ez direla ondo egiten ari esaten diet.

Mikel: Nik ez dut sekula gozatzen... gelditzen naizenean bakarrik!

Santi: Gozatuko ez bazenu, ez zenuke korrika egingo!

Mikel: Badakizu zer duen ona? Orain lehen baino askoz ere gutxiago sufritzen dudala. Lehengoan, ajea apur batekin, 14 kilometro egin nituen.

Santi: Bukatzen duzunean gustura sentitzen bazara, hori gozatzea da. Zuk 14 kilometro egitearekin nahikoa duzu; beste zenbaitzuek, berriz, euren buruari egunero gehiegi eskatzen diote. Urretxu eta Zumarragan korrika egiten duten ia guztiak, egun batean korrika egiterik ez badute edo nahi zutena baino polikiago joan badira haserratu egiten dira. Guztiok ditugu egun onak eta txarrak eta hori ulertzen eta gozatzen jakin behar da. Presiopean joatea txarra da.

Mikel: Nik ere neure burua estu-

tzen dut eta urtetik urtera Behobia-Donostian hobetzea gustukoa dut!

Santi: Baina ez duzu ez erlojurik ez pultsometrarik eramaten... Pultsometroa edukitzearen aldekoa naiz, baina ez egunero erabiltzearen aldekoa. Egunero pultsometroari eta kronometroari begiraturaz, ezin da gozatu.

Mikel, garai bateko kirolariengandik egungoengandik baino hurbilago zaude-la dirudi.

Mikel: Gu Behobia-Donostia inguruan hasitakoak gara: koadrilako hiru korrika egitera joaten gara eta gainontzeko guztiak bazkaltzera bakarrik. Baina Behobia-Donostia egiteko entrenatu beharra dago, gero Gasteizkoa egiten hasi ginen, Azkoitiakoa... Dena den, maratoia Behobia baino askoz ere serioagoa da. Luzeraz bikoitza da, baina gogortasunez...

Santi: Gogortasunez laukoitza izango da. Maratoi erdia edonork egin dezake apur bat entrenatuta, baina maratoia egiteko sakrifikatu beharra dago.

Ondo entrenatzea garrantzitsua izango da, baina zehatz-mehatz eraman behar al dira kontu horiek?

Santi: Aipatu bezala, gauzak lasai hartu behar dira. Atletak guztiak denetik jateko esaten diet. Barazkiez hitz egiten hasten direnean, babarrunak ere jateko esaten diet. Denetik janda ere, dena erretzen da. Izan ere, jende gehienak lana eta kirola uztartzen ditu.

Mikel: Behin Cangas de Onisera joan nintzen bizikletan ibiltzera eta ni izan nintzen xerra jaten bakarra: gainontzekoek pasta bakarrik jan zuten. Dena den, oraingo honetan tranpa txiki bat egin dut: odol emaila naiz, baina asteartean ez nuen odollik eman badaezpada ere.

Lasterketa askotan parte hartu duzu, bala duzu beste erronkarik?

Mikel: Gustura egingo nuke New Yorkeko maratoia, baina 46 urte ditut eta belaunak nahiko izorratuta ditut jada. Urte berean Sevilla, Gasteiz, Bilbo eta

Donostiako maratoiak egitea ere sekulakoa izango litzateke!

Santi: Urte berean? A zer nolako erronka! Aupa Mikel! Lasai joanez gero, egiteko modukoa da.

Mikel: Erritmoa markatzen nahiko ona naiz, erritmo bakarra baitut. Behobia ordu eta erdi azpitik egitea ere gustatuko litzaidake. Baina horretarako lasterka joan beharra dut.

Santi: Zuk maratoia eta maratoi erdia erritmo berean egiten dituzu.

Zer diote ingurukoek, Mikel?

Mikel: Korrika egitea ez zaidala komeni esaten didate eta, beharbada, arrazoia izango dute. 80 kiloko pisua dut eta hori gehiegi da belaunentzat. Gainera, ez naiz gehiegi zaintzen.

Santi: Azkenaldian pisua galdu duzula esango nuke.

Mikel: Bai, baina pote dexente hartzen ditut, lagunekin afaltzera joaten naiz...

Santi: Hori ez da utzi behar! Gainera zapatilak izugarri hobetu dira eta belaunek lehen baino askoz ere gutxiago sufritzen dute.

Bukatzeko, Mikel, zer da zuretzat atletismoa?

Mikel: Nire lagun batek esaten zuen moduan, "ezer egin gabe 70 kiloko pisua izango banu, ez nuke sekula praka motzik jarriko". Dena den, gustura joaten naiz korrika egitera. Denbora asko eskatzen ez duen kirola da eta, gainera, aire librean egiten da. Okerrena non korrika egin ez dagoela da: Legazpirantz joatea arriskutsua da, bidegorrian jende asko ibiltzen da... Gainera, maratoia prestatzeko serio hartu beharra dago. Elurra egin zuteneko igande arratsaldean autoan Mugitegira joan nintzen, erdi ezkutuan, korrika egitera. Edonork ikusita ere... Behobia egiteko ez dago horrela ibili beharrik. Gainera, jendearen animoa lagungarria izaten da eta, bestalde, hainbeste jenderen artean gelditzeak lotsa ematen du.



Ander Gisasola

Korrika 14ko Goierrri Garaiako koordinatzailea den Anderrek Ikastolan eta Garaialde Lizeoan egin zituen Unibertsitatea bitarteko ikasketak eta orain Ingeniaritza Informatikoa bukatzen ari da ETEOn. 22 urte besterik ez dituen arren, lana erruz egin du dagoeneko: "Ez dakit langilea naizelako, saltseroa naizelako edo ezetz esaten ez dakidalako, baina dagoeneko Herce-n, Itxune tabernan, Orlandoko Disney parkean eta Ikastolen Elkarteko ingeles kolonietan lan egin dut, besteak beste".

Egun Anderrek bere amaren Motz tabernan lan egiten du asteburuetan eta amak jai hartzen duenean. Motz taberna bere amak ireki zuen duela 25 urte eta udako oporren ostean urteurrena ospatuko dute.

Aipatu bezala, orain Korrika 14ko koordinatzaile lanetan dabil burubelarri. "Aitor Calvillo Goierrriko arduradunak nire berri izan zuen eta azpieskualde honetan Korrika koordinatzea eskaini zidan. Gipuzkoa osoko jende asko ezagutzen ari naiz eta beste lanetan egin ez ditudan gauzak egiten ikasten ari naiz. Herriko jendearen eta elkarteen erantzunaz gustura nago. Izan ere, elkarteek hartu dute Korrika Kultureko ekitaldiak antolatzearen ardura. Herritarrak elkarteek antolatutako ekitaldi hauetan eta martxoaren 16ko Korrika eguneko jaiari parte hartzea animatu nahi ditut".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Oraindik nahiko umea naiz...

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin irteeta, zinera joatea, irakurtzea... baina denbora libre gutxi dut.

-Bizitzeko toki bat?

Orain arte hemen bizi izan naiz eta ez da toki txarra.

-Korrika egiteko ohitura al duzu?

Gutxi, tokatzen denean bakarrik.

-Nor bidaliko zenuke lehertu arte korrika egitera?

Bat baino gehiago, baina halakoak ezin dira denon aurrean esan.

-Zein da eskatu dizuten edaririk xelebreena?

Jaietan eskatzen dituzten txupitoak sekulakoak izaten dira. Kanpoko jendea etortzen da eta txupitoek herri bakoitzean bere izena dutenez...

-Zer egiten duzu gogaikarri jartzen direnekin?

Ahalik eta zarata gutxien ateraz, kalera bidaltzen saiatzen naiz. Dena den, behin bakarrik suertatu zait norbait kalera atera beharra.

-Gaueko giroak ez al du nabarmen behera egin?

Jaisten ari da. Gainera, 10 urtetik hona taberna kopurua bikoiztu egin da eta taberna bakoitzean jende gutxiago dagoenez, giroa apalagoa da.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Ilegorriak.

-Egindako azken oparia?

Amari Uruguaira bidaia.

-Eta jasotakoa?

Grabagailu bat.

-Data bat?

Ez da bereziki gogoratzen dudana datarik.

-Neska eta mutil izen bana?

Aiur eta Unax. Haurdun dauden bi lagunek euren haurrei jarri behar dizkietenak.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara, Berria eta Hitza egunero irakurtzen saiatzen naiz. DV edo besteren bat nonbait topatzen badut ere, bistadizoa botatzen diot.

-Gustuko telebista saioa?

Fikziozko serie txukunak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Gertakariak jorratzen dituzten goizeko saioak.

-Liburu bat?

Orain "El Club Dante" ari naiz irakurtzen.

-Filme bat?

Filme asko ikusten ditut, baina ez dut 10.000 aldiz ikusiko nukeen filme bat.

-Soinu bat?

Urarena.

-Usain bat?

Duela urte eta erdi, sudurretik operatu ondoren, gauza guztiek usaina zuten niretzat. Usaina baino, sentsazio hura atsegin dut.

-Janari bat?

Etxean prestatutako edozer.

-Ura ala...

Ura.



zaldizurreta 3

beasain

colors

urretxu

barrenkale 17

asier larraza-argazkiak argitalpenak.moda.publizitatea
tl:665733634



SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE